

EUSKARAZKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SA

AKZIODUNEN OHIKO BATZAR NAGUSIA – AKTA

Lekua: Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkea.

Data eta ordua: 2009ko ekainaren 6a, goizeko 10:00etan hasita (bigarren deialdian).

Administrazio Kontseiluak Akziodunen Ohiko Batzar Nagusi honetarako deialdia egin zuen. Estatutuetan agindutakoari jarraituz deialdia 2009ko apirilaren 7an BORMEren 66. zenbakian eta 2009ko maiatzaren 3an BERRIA egunkarian argitaratu zen. Honela dio deialdiak:

EUSKARAZKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SA Akniodunen Ohiko Batzar Nagusirako Deialdia

Egun indarrean dagoen legeari eta estatutuetao araudiari jarraiki, Administrazio Kontseiluak, aho batez, sozietatearen Akziodunen Ohiko Batzar Nagusira deitzea erabaki du, Andoainen egingo dena, **MARTIN UGALDE KULTUR PARKEAN**, Gudarien etorbidean, 2009ko ekainaren 5ean, goizeko 09:00etan, lehen deialdian, edo **2009KO EKAINAREN 6AN, GOIZEKO 10:00ETAN**, bigarren deialdian, ondoren zehazten diren gaiak aztertu eta dagozkion erabakiak hartzeko.

GAI ZERRENDA

- 1.- Urteko kontuak (Balantzea, Irabazi eta Galeren Kontua eta Memoria), Kudeaketa informea eta Administrazio Kontseiluaren kudeaketaren azterketa eta onarpena, hala badagokio, eta emaitzaren gaineko proposamena. Hau guztia 2008ko abenduaren 31n itxitako ekitaldiari dagokio.
- 2.- Sozietateak parte hartzen duen enpresen egoerari buruzko informazioa.
- 3.- 2009rako kudeaketa planaren eta aurrekontuen aurkezpena.
- 4.- Kontseilarien kargugabetze, hautatze eta izendatzea, hala badagokio.
- 5.- Galde-eskeak. Hainbat gai.
- 6.- Ahala ematea Administrazio Kontseiluko Lehendakariari eta Idazkariari, bietako batek Akziodunen Batzar Nagusi honek hartutako erabakiak publiko egin ditzan.
- 7.- Batzarraren aktaren idazketa, irakurketa eta onarpena, hala badagokio. Edo, horretarako ikuskatzaileak izendatzea.

Deialdi hau egiten den unetik, Batzarrean onartzeko aurkeztuko diren agiriak eta behar diren informeak akziodunen eskura daude egoitza sozialean.

Akniodunen eskura dago sozietatearen web orrian (www.ektsa.net), besteak beste, deialdiaren testu osoa.

Edozein informazio osagarri eskuratzeko edo Batzarrean eztabaidatzeko gaiet buruzko argibideak jasotzeko, akziodunek Akziodunaren Arreta Zerbitzura jo dezakete, Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkera agertuz, 943304345 telefonora dei eginez, edo posta elektronikoa erabiliz akziodunak@ektsa.net helbidera idatziz.

Akniodunaren Arreta Zerbitzuaren harrera ordutegia hau da: astelehenetik ostiralera, goizeko 09:30etik 13:30era eta arratsaldeko 16:30etik 19:30era.

Andoainen, 2009ko martxoaren 6a. – Administrazio Kontseiluko Idazkaria, Joanmari Larrarte Telletxea–

Estatutuek arautzen duten moduan, Batzarreko lehendakaria Jose Antonio Lizarribar jauna izan da eta idazkaria, berriz, Joanmari Larrarte jauna, Administrazio Kontseiluko lehendakari eta idazkaria hurrenez hurren. Halaber, batzarreko mahaia osatu du, aipatutakoez gain Rebeka Arraras lehendakariordeak. Administrazio kontseiluko gainontzeko kideak, osasun arazoengatik etorri ezin izan duen Maixan Merkapide salbu, batzarraren aurrean agertu dira.

Batzarra hasi aurretik, idazkariak bertaratutakoen zerrenda osatu du. Bertan bilduriko akziodunen izenak eta ordezkaturiko akziodunen eta haien ordezkarien izenak ageri dira; eta bildutakoen eta ordezkatuak akzioen kopurua ere agertzen da. Zerrenda egiteko *CD-a* erabili da eta idazkariak eta lehendakariak gainean sinatu dute eta prezintatua gelditu da. Zerrenda batzarreko aktari erantsiko zaio.

Bertaratuen zerrendaren arabera, akziodunek zuzenean ordezkatzeko duten kapital kopurua % 2,5 da, ordezkariaren bitartez ordezkaturiko kapital kopurua, berriz, % 9,6 da. Guztira batzarrean, kapitalaren % 12,1 izan da ordezkaturik. Batzarra bigarren deialdian osatu da, lehenengoan beharrezko quorumik batu ez zelako.

Lehendakariak Ohiko Batzar Nagusia eratuta dagoela erabaki du eta gai zerrendan aipatutako puntuak eztabaidatu eta erabaki dira batzar honetan.

1.- Urteko kontuak, Kudeaketa informea eta Administrazio Kontseiluaren kudeaketaren azterketa eta onarpena.

Lehendakariak eta Idazkariak gaia aurkeztu dute eztabaidara. Eztabaidaren ondoren, erabakitzea pasa da eta, aho batez onartu ditu Batzarrak 2008ko Kontuak eta Kudeaketa.

Era berean, Akziodunen Batzarrak berretsi egin du 2008ko ekainaren 6an Administrazio Kontseiluak Universitas Vasconum Fundazioaren sorreran parte hartzeko erabakia.

2.- Sozietateak parte hartzen duen enpresen egoerari buruzko informazioa.

EKTko enpresek parte hartzen duten beste enpresen berri eman da, akziodunek informazioa izan dezaten. Gai hau informatiboa izan da, eta akziodunen galderari erantzun ondoren, bukatutzat eman da eztabaida.

3.- 2009ko Kudeaketa Planaren eta aurrekontuen aurkezpena.

Lehendakariak eta Idazkariak 2009ko Kudeaketa Plana eta aurrekontuak aurkeztu dituzte, enpresa taldearen urteko asmo eta helburuen berri emanez.

4.- Behar izanez gero, kontseilarien kargugabetze, hautatze eta izendatzea.

Izendatu zenetik karguan bost urte egin ondoren, Rebeka Arraras andereak administrazio kontseiluko kargua utzi egin du, eta bere lekuan Emilio Majuelo jauna izendatuko da administrazio kontseiluko kide

Eta ondoren Administrazio Kontseilu berria izendatu da, hurrengo bost urterako:

- Nagore Amondarain

- ❑ Abel Ariznabarreta
- ❑ Kristina Berasain
- ❑ Alazne Iruretagoiena
- ❑ Joanmari Larrarte
- ❑ Joxan Lizarribar
- ❑ Emilio Majuelo
- ❑ Maixan Merkapide
- ❑ Pello Zabala

Izendatua bileran izan da eta onartu egin dute izendapena.

5.- Galde-eskeak.

Akziodunek hainbat eskaera egin dizkiote Administrazio Kontseiluari:

- BERRIAra irakurle berriak erakartzeko euskaldun berriengana joan behar dugu; atal bat sortu beharko litzateke euskaraz irakurtzeko zailtasunak dituztenentzat, laguntza zerbitzu bat.
- Formatu digitalean, BERRIAren webguneak, aukera eman beharko luke zuzenean informazioa joateko (iragarkiak ikusi gabe).
- EK'Tk beste bazkideekin batera dituen proiektuetan, ze gertatuko litzateke bazkideetako batek porrot egingo balu?
- Astelehenetan ez da BERRIA argitaratzen. Asteleheneko agenda igandetan sartu liteke?
- Aipatu duzue 2008. urtean Bizkaiko Foru Aldundiak ez zituela HITZAK lagundu. Zein izan zen arrazoia?
- Diru kontuekin kezka handia ikusi dut; aipatu da zerbitzu enpresetatik etorri behar dutela irabaziak. Hori kezagarria da; zerbitzu enpresak egunkaria bera baino garrantzitsuagoak izan litezke. Gure helburua egunkariak saltzea izan behar du, horretan egin behar dugu lan.
- BERRIAren banaketa zerbitzua hobetu egin behar da.
- Komunikazio taldea izanik, ekonomiako aldizkaria, atala, gunea interneten... egin beharko genuke. Gaiak interes handia du.
- Hemen ikusitakoak ikusita, harrigarria da aurkeztutako emaitzak. Zorionak!

Akziodunek proposatutako gai guztiak erantzun eta lantzeko konpromisoa hartu du Administrazio Kontseiluak.

6- Ahala ematea.

Lehendakariak Administrazio Kontseiluko Lehendakariari eta Idazkariari Batzar Nagusi honetako erabakiak publiko egiteko ahal ematea proposatu du. Batzarrak aho batez erabaki du Lehendakariari eta Idazkariari ahala ematea, bietako edonork bere aldetik egiteko aukera izan dezan.

7- Akta onartzea.

Idazkariak Batzar honetako akta osatu eta irakurri egin du Batzarraren aurrean. Akta aho batez onartuta geratu da, lehendakariak eta idazkariak sinatu dute sozietatearen akta liburuan jasota gera dadin.

Andoainen, 2009ko ekainaren 6an.

IDAZKARIA

Joanmari Larrarte Telletxea

LEHENDAKARIA

Jose Antonio Lizarribar Exposito